

GURE EKOSISTEMAKO IRUDIAREN AZALPENA

Taldea: 1. TALDEA

Izen-abizenak: Guillermo Garaizar, Nestor De Elvira, Naroa Etxeberria eta Lexuri González.

Izenburua: Eskoziako basoa.

EKOSISTEMAK gaia adierazteko egingo dugun irudiaren ikusizko baliabideak txosten honetan azalduko ditugu. Azalpen honen bitartez irudi proiektuaren planifikazioa egingo dugu. Showbieren bitartez bidaliko dugun txosten hau proiektuaren ebaluaziorako errubrikaren bigarren atalean baloratuko da.

1. **Irudiaren mezua eta efektuak.** Zer adierazi nahi dugu irudiaren bitartez? Zeintzuk dira irudiak adierazten dituen efektuak?

MEZUA: Eskoziako klima adieraziko dugu, baita animalien lasaitasuna eta bizitasuna ere. Irudian eskoziako klima adierazi nahi dugu, horretarako hodei grisak eta beltzak margotuko ditugu. Animaliak belarra jaten, ura edaten, atsedena hartzen, hegan egiten eta bainu bat hartzen adieraziko ditugu. Mendien gailurretan elurra egongo da, negua bukatu dela adierazteko. Azkenik, belarra berde kolorekoa eta ura urdin kolorekoa margotuko dugu udaberria dela adierazi nahi dugulako. Udaberria adierazteko kolore desberdinak erabiliko ditugu.

EFEKTUAK: irudiaren goiko aldean **mugimendua, sakontasuna eta bizitasuna** egongo da, eta hegaztietan adieraziko dugu batez ere. Beheko aldean **armonia eta lasaitasuna** adierazi nahi dugunez, animaliak geldirik egongo dira. **Mugimenduak** eragiten duen **norabidea alde guztietara izango da, hau da, gora, behera, ezkerredera eta eskumara. Kontrastea** ere adieraziko dugu kolore desberdinak erabiliz.

2. **Ikus-elementuak.** Irudian erabiliko ditugun lerro eta koloreak azalduko ditugu. Azalpena idazteko **ZER, NOLA eta ZERTARAKO** egiturari jarraituko diogu, erabilitako ikus-elementuak eta hauen ezaugarriak irudiaren mezua eta efektuekin harremantzeko.

- Lerroak (lerro motak eta hauen ezaugarriak):

Lerro zuzenak **lasaitasuna eta norabidea** adierazteko eta kurbatuak **mugimendua, sakontasuna eta bizitasuna** adierazteko erabiliko ditugu. Lerroetan intentsitatea, zabalera eta kolorea landu ditugu. Intentsitatea eta zabalera lerroek garrantzia hartzeko, gehiago ikusteko eta lerro motaren efektua handitzeko. Azkenik, koloreak erabiliko ditugu, lerroaren koloreen arabera, kolorearen efektu berdinak lortzeko. Ezaugarri hauek irudi guztian zehar agertuko dira, mendietan eta animalietan adibidez.

- Koloreak (kolore motak eta hauen ezaugarriak):

Kolore hotzak eta beroak erabiliko ditugu irudiaren beko aldean **kontrastea** lortzeko. Irudiaren beheko aldean **armonia** adieraziko dugu **lasaitasuna** lortzeko. Adibidez: belarran, uran (kolore hotzak) eta altzean (kolore beroak).

3. **Irudiaren konposaketa.** Irudian erabiliko dugun konposaketa azalduko dugu. Azalpena idazteko **ZER, NOLA eta ZERTARAKO** egiturari jarraituko diogu, erabilitako konposaketa eta hauen ezaugarriak irudiaren mezua eta efektuarekin harremantzeko.

- Konposaketa (simetria, asimetria, erritmoa... eta honen ezaugarriak):

Gure irudian ez dago simetriarik, asimetrikoa dago zeren eta goiko aldean **mugimendua eta kontrastea** adieraziko dugu eta beheko aldean **lasaitasuna eta armonia**.